

## Galdera

Bihotza gelditu denean, bihotza '**suspertu**' edo '**bizkortu**' egin behar da? Biek balio dute?

## Erantzuna

'**Bihotz-biriketako bizkortze**' da termino normalizatua eta gomendatua –behin-behinean bederen–, eta gaztelaniazko *reanimación cardiopulmonar* terminoaren ordain egokia. Beraz, hedaduraz, 'bihotza bizkortzea'; 'suspertze' hitza sinonimoa bada ere.

**1/** Ikusi beste termino baliokide batzuk euskaraz eta gure inguruko beste hizkuntza batzuetan [reanimación cardiopulmonar](#) sarreran, Euskalterm Terminologia Banku Publikoan:

### Bihotz-biriketako bizkortze

Medikuntza - Zirkulazio-aparatua - Terapeutika [Kardiologia Hiztegia] [2021]

**eu** **bihotz-biriketako bizkortze** <sup>(4)</sup>  
**berpizte kardiopulmonar** <sup>(4)</sup>  
**bihotz-arnasetako bizkortze** <sup>(4)</sup>  
**BBB** <sup>(4)</sup>


Definizioa: Bihotz-geldialdi akutuan erabiltzen den prozedura. Zuzeneko arnasketa artifizialaren eta kanpoko bihotz-masajearen bidez egiten da, eta, zenbait kasutan, desfibrilazio elektrikoa erabiliz eta taupada-markagailuak ezarriz. Prozedura horren helburua da organo bitalak, bihotza barne, odol oxigenatuarekin berriro irrigatzea eta, horrela, zirkulazioa berrabiatzea.

**es** reanimación cardiopulmonar  
resucitación cardiopulmonar  
RCP  
reanimación cardiorrespiratoria

**fr** réanimation cardio-respiratoire  
RCR  
ressuscitation cardio-pulmonaire  
RCP

**en** cardiopulmonary resuscitation  
CPR  
cardiorespiratory resuscitation

Oharra: Terminologia Batzordeak honako ponderazio-marka hauek erabiltzen ditu:

- 0 Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
- 3 Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4 Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneraren zain)
- 4  Termino normalizatua/gomendatua